

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 3.711 milioi euroko gastu-muga onetsi du 2012rako

*Neurri horrekin % 2,95 murriztuko da 2011ko gastuarekin alderatuz*

Miércoles, 07 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak 2012. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak lantzeko jarraibideak onetsi ditu gaurko bileran. Onetsitako testuak jasotzen duenez, gastu-muga 3.711 milioi eurokoa izango da, hau da, 2011ko aurrekontuan baino % 2,95 gutxiago eta % 7,1 gehiago urtea ixteko aurreikuspenarekin alderatuz.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilari Álvaro Miranda Simavillak 2012ko aurrekontuak

osatzeko prozedura berria azaldu du gaur goizeko prentsaurrekoan; aurrekontu horietan gastu/hobari fiskalak sartuko dira, eta finantzakoak ez diren diru-sarrerak eta gastuen aurrekontua egingo da Kontabilitate Nazionalaren baldintzetan.

### Egoera makroekonomikoa eta zergak

2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak lantzeko jarraibideak, 2012an BPGd-a % 1,9 haztea kalkulatzeko duen egoera makroekonomiko batetik abiatzen dira; horrekin batera, enplegua sortzea aurreikusten du, urtean batez beste % 0,8 haztea, BPGd-ren gainean % 1,3ko defizita helburutzat jarrita. Espainia osoan, datorren urterako BPGd-a hazteko aurreikuspena % 2,3koa da, eta % 1,4koa urteko batez besteko enplegua handitzeari dagokionez; defizitaren helburua, berriz, -%4,4koa da.

Egoera honetan, Miranda kontseilariak adierazi duenez, Nafarroako Gobernuak zergaren bidez diru-sarrerak % 2,5 igoko dela kalkulatzeko 2011. urtea ixteko aurreikuspenarekin alderatuz. 2012rako finantzakoak ez diren diru-sarrerak kontuan hartuz (zergak, tasak eta beste diru-sarrerak barne), guztira 3.407,0 milioi euro lortzen da, 2011. urtea ixteko aurreikusitakoa baino gehiago. Hala, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen diru-sarrerak handitzeko bidea finkatzen da.

2012rako defizitaren helburuari dagokionez, BPGd-a % 1,3an kokatzen da, aurtengo ekitaldian bezala, hau da, 257 milioi euro. Aldiz, 47 milioi euroko balioa duen kontabilitate nazionalako doitzeak kalkulatzeko dira.



Álvaro Miranda lehendakariordea eta Juan Luis Sánchez de Muniáin kontseilari bozeramailea Nafarroako Gobernuaren erabakien berri ematen.

Horrenbestez, aipatu denez, finantzakoa ez den 2012ko gastu-muga 3.711 milioi eurokoa da. Kopuru horrek, aurreikusitako 22 milioi euroko finantza-gastuari gehituta, datorren urterako, guztira, 3.733 milioi euroko aurrekontua ematen du.

Gaur aurkeztutako datuekin bat etorriz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak adierazi du 2012an Nafarroak bere gastu-gaitasuna % 7,1ean handituko duela (245 milioi euro) 2011. urtea ixteko aurreikusitakoaren alderatuz. Eta hori, hiru faktoreren ondorioz: diru-sarreraren igoera, Foru Erkidegoaren BGPd-aren hazkundean ikusitako jokabide hobea eta aurtengo ekitaldiarekin alderatuz, kontabilitate nazionaleko doitze txikiagoen aurreikuspena.